

Gauzak publiko bihurtzen

Parlamentuen parlamentu bat: nola gainditu irudikapenaren krisia

“Demokrazia”, Winston Churchillen esaera ospetsuan, “gobernu formarik okerrena da, gainerako guztientzat izan ezik.” Jakina, askoz hobe izango litzateke baldin eta, herritar arrunt miopeak garen aldetik, gure nagusien eta adinekoen zaintzapean utziko bagenitu geure bizitzak.

Baina zaindari superzorrotz horiek desagertu egin dira, antza, joan den mendearen nahasmenduan, goi-mailako kasta baten, goi-mailako abangoardia baten, goi-mailako historiaren zientzia baten ametsekin batera. Oraindik orain, merkatu indar izugarri jakintsuen esku onbera ikusezinean jarritako konfiantza bera ere apur bat gutxitu da. Askoz errazagoa izango litzateke, noski, jarraituko bagenu geure biologia, geure ekologia, geure industria, geure ordenagailuak, geure ekonomia eta geure politika gehiago dakiten eta urrunago ikusten duten zientzialari eta ingeniarien eskuetan utziko bagenitu. Baina irtenbidearen parte ziren

zientziak, bata bestearen atzean, arazoaren parte bihurtu dira. Zientzia eta teknologiaren objektuak hain polemiko bihurtu dira, eta hainbeste nahasi dira elkarrekin, non agintea adituengan delegatzea ez baitirudi agintea parlamentuko kideengan delegatze zaharra baino askoz errazagoa denik. “Irudikapenaren krisia” izan da horri egin zaion diagnostikoa. Eta nora garamatza horrek? Aurrerantzean, itsuek gidatuko dituzte itsuak. Ongi. Gutxienez, libratu egin gara orojakileek guretzat fabrikatutako amesgaizto-eszenatokietatik. Gidatuak izan behar dugu, ordea, nolabaiteko akordiora iritsi behar dugu egoera polemikoei dagokienez. Irudikapenaren krisia nonahi egon arren, zientzian, legean, etikan, artean, politikan... hori gainditu egin behar da nola edo hala. Demokraziak zabaldu egin behar du, antza denez, zientziaren eta teknologiaren gauzetara, politikoki izugarria izango bada ere; nahiz eta, berriro ere, ez izan gainerako guztia bezain izugarria. Behar-beharrezkoa da beste akordio konstituzional bat, baldin eta nola edo hala zabaldu egiten badugu Konstituzioaz ulertzen den hori. Politikaren auzi klasikoak irudikapenaren teorien bidez konpontzen ziren, eta horrek azkenean Parlamentuaren instituziora eraman zuen, Konstituzioaren *hortus sublimus* moduan ulertua. Irtenbide bilaketa zabaldu egin nahi dugu, beste hainbat teknologia barne har ditzan: irudikapen, simulazio, delegazio, manipulazio, eragin eta hautaketa teknologiak, hain zuzen ere. Zientziaren dinamika ezin imajina liteke politikarik gabe, ezta politikaren dinamika zientziarik gabe ere. Soziala, zientifikoa, teknologikoa, teorikoa eta praktikoa bata bestearekin nahasten dira. Egin nahi dugun erakusketan, politikak, zientziak eta teknologiak etorkizun berri bat esploratuko dute, egungo praktiken diagnostiko batean oinarritua eta historia materialaren perspektibak argiztatua.

Testu hau Karlsruheheko ZKMn 2004ko udazkenean ospatuko den

erakusketaren lan-dokumentu bat da (izenburua zein datak

behin-behinekoak dira). Peter Weibel & Bruno Latour izango dira

komisarioak. Obra eskatu zaien lankideen zerrenda definitzeke

dago oraindik. Iradokizun guztien kopiak email hauetara bidali:

pihet@zkm.de, edo pihet@csi.ensmp.fr

Horra proposatzen den erakusketaren formatuaren arrazoiak: konparazioa egitea ahalbidetzea, baina ez zientziaren, politikaren eta artearen alorreko irudikapen teorien maila handiosoan, atzeko ate xumetik baizik, hots: nola gauzen irudikapen kolektiboa posible egiten den praktikan. Esate baterako, botoa emateko makinaren asmaketa Rousseauren “borondate orokorra” baino gehiago interesatuko zaigu; hitzen zuhaitz afrikarra Zuzenbide Estatuak zabaltzea baino gehiago; eztabaidarako teknika eskolastikoak erlijioaren auzi orokorra baino gehiago; zenbait tresna zientifiko modernok duten datuen 3Dko irudikapen grafikoa zientziak munduaren irudikapen benetakoa eskaintzen duen edo ez jakitea baino gehiago.

Politikan, ez zaigu interesatuko demokrazia ordezkatzaileraren gaineko eztabaida osoa, soil-soilik eztabaida horien elkargunea denon artean eztabaidatu beharreko auzi teknikoaren espazio publikoan eramatearen kontuarekin, baita zein baldintzatan alda dezaketen beren pentsamoldea alderdiek, lobbiek, partisoen edo interes bereziko taldeek ere. Zientziaren esparruan, interesatzen zaiguna ez da irudikapenaren eta instrumentalizazioaren egokitasunaren auzi epistemologiko osoa, baizik eta berrikuntza batzuk bakarrik, mota askotako datuen espazio batek apustugile ez hain adituen arreta deitzea ahalbidetzen dutenak, hain zuzen (“zientzia performatiboa” delakoan bezala).

Artearen arloan, ez zaigu interesatzen irudikapenaren beste kritika bat —jada ZKMren *Iconoclash* izeneko beste erakusketa baten gaia izan dena: http://www.ensmp.fr/~latour/expositions/001_iconoclash.html—, baizik eta prozedura, forma, itxura eta leku berriak asmatzea espazio publikoak dramatizatzeko, haiek, hitzez hitz, berriro errepresentatzen dituzten.

Ekonomia kontuetan, ez zaigu kapitalismoaren edo “merkantziaren erresuma”-ren kritika interesatzen, baizik eta kontularitza, plangintza, negozio plan, banka, aurrekontuen bozketa, eta abarren alorrean eginiko zenbait berrikuntzak nola eragin lezaketen aldaketa xume baina garrantzitsu bat jendeak “mundu eredugarri”-ei dagokienez dituen lehentasunen adierazpen askotarikoan.

Zuzenbideari dagokionez, ez zaigu Konstituzioen historia osoa interesatzen, soil-soilik espazio publiko berriak sortutako kontuetan —pertsonei zein gauzei dagozkienak— gurutzatzen diren alderdi legalak baizik. Nola ematen zaie ahotsa ahotsik ez dutenei? Zein dira herritarren nozioaren mugak eta zabalpen posibleak?

Erljioaren arloan, ez zaigu interesatzen sekularizazioaren eta fundamentalismoaren kontu handiosoa, baizik eta nola aurkitu diren irtenbide praktikoa erlijioak parekagarri, eztabaidagarri egiteko, elkarrekin bizi daitezkeen bultzatzeko.

Medioen esparruan, eta batez ere interneten, ez zaigu interesatzen ziberpolitikaren amets guztiak berrikustea, berrikuntza zehatz batzuk baizik —webzaleak, webguneak, ikusizko aurkezpenak, hiperloturak—, ideia berriak hornitzen baitituzte eragileei gaitasun berriak emateko “ziberespazio partekatua”-ren barruan.

Erakusketa honetan hiru genero desberdin nahasiko dira, inoiz elkarren ondoan egon ez direnak.

Horietatik lehena Erakusketa klasiko samarra da, gauzak jendaurrean ikusgarri eta azalgarri egiteko asmatutako mekanismoen historia eta antropologiaren inguruan. Jakina, ahal dugun guztia egingo dugu bisitariei horren ezagunak ez diren hainbat leku erakusteko. Baina leku tradizionalak berrikustean ere — hala nola agora atenastarra, islandiar “Gauza”, Paduako *Palazzo della Ragione*, Berlingo Reichstag berria, Zientziaren Errege Akademia, XVII. mendeko Bitxikeria Bildumak, Burtsaren behe solairua edo Tokioko protokoloa etab.—, beti saiatuko gara azpimarratzen *topoi* horiei egin zaizkien interpretazio eta historiaren berrikuspen berriak.

Bigarren generoa Azoka da. Bertara sartu ahal izango dira —nolabaiteko hautaketa baten ostean— gai eztabaidatsuei buruzko beren iritziak barik, haiei irtenbide bat emateko imajinatu dituzten mekanismo praktikoa aurkeztu nahi dituzten guztiak: erakundeak, ekintzaileak, irakasleak, alderdi politikoak, artistak... Aukeratutako taldeak, txartelaldiak, kabinak, instalazioak eta esperimenduak ▶▶

» erabilia, alderaketarako espazio zabal bat sortu ahal izango dute, eta horri esker demokraziaren auzia bere praktika umilen eta oinarrizkoenaz aztertua izango da. (Ez da beharrezkoa denak Karlsruhe fisikoki egotea, jakina, teknologia berriak gogotik baliatzeko asmoa baitugu, parlamentuen parlamentu hori espazioan eta denboran banatzeko xedez.

Hirugarren gertakari mota, askoz arriskatsua eta adierazten zailagoa, baina nahitaezkoa, Simulazio bat da: eskala desberdinetan simulatzea konpondu gabeko gaiei buruzko benetako eztabaidak, publikoari erakusteko irtenbide posibleak demokrazia zientifikoaren gauzetan bideratu beharreko prozesuaren egokitasunari dagokionez, edo Sheila Jasanoffek epistemologia zibikoa deitzea proposatu duena. Esaterako, hainbeste banaketa sortu eta hain tekniko den europar arrantza industria nola kudea daitekeen biltzar mota desberdinetan aztertzeko saioa egin liteke (eta hemen ere, gertakariak dis-lokatu egin litezke denborari zein espazioari dagokienez).

Ilustrazioaren argi itsugarria azkenean ilundu denean, bonbillarik txikiak ere erosotasun iturri baliotsua horni dezake.

Hiru generoek —Erakusketa, Azoka eta Simulazioa— elkar osatuko dute, mekanismoak eta prozedurak ikusgai geratuko baitira, eta, horrenbestez, espazioan parekagarri.

Bisitariak, esku-hartzaileak eta adituek iraganeko ideia praktikoak bereganatzeko gai izan beharko lukete, baita beste esparruetatik ere, demokrazia teknikoaren alde egiten ari diren ahaleginak arrakastaren ordaina ekar lezaketen berrikuntza xumeen inguruan.

Aukera berriagoak ere badaude, datuak eta ideiak ordenagailuan oinarritutako simulazioen bidez aurkezteko, eta horiek funtsezkoak dira erakusketarako, ez bakarrik demokraziaren tresna berriak diren aldetik, erabakiak hartzearen historia berrikusteko baizik.

Nola gauza daiteke demokraziaren zabaltze hori giza-gaindiko ezagutzaren ilusioak nekez aurrera egiten duen bitartean? Jendeari eztabaida egoeren inguruan biltzea ahalbidetu dioten mekanismoak, trikimailu txikiak eta irtenbide adimentsuak alderatuta. Prozedura horietan, ezein ez da, bere kabuz, oso prometagarria, baina denek batera hartuta aurrera egin lezake irudikapen krisia gainditze bidean. Galdetu ikusmen murriztua duten pertsonen makilatxo zuriaren asmaketa xumeak ekarri zien izugarriko aldatetari buruz. Era beretsuan, beste alternatibarik ez badago —eta ez dago beste alternatibarik—, ongi etorria egin beharko zaio pertsonatxo ezjakinak (alegia, gu denok) apur bat haratago eta bizkorrago joatea ahalbide lezakeen asmakizunik ñimiñoenari. Ilustrazioaren argi itsugarria azkenean ilundu denean, bonbillarik txikiak ere erosotasun iturri baliotsua horni dezake.

Publikoa guztiengan eragina duen hori da, zer den inork ez dakiena.

Barruan hartu beharreko esparruak neurrigabeak direnez, antza, eta nola zeregin entziklopediko batean ez dugun sartu nahi, nolabaiteko aukeraketa egin behar dugu geure interes fokuen inguruan. Erakusketaren hiru alderdietarako hautaketa printzipio nagusia honako hau da: Berrikuntzarik izan al da-izan al zen?

Informazioa biltzearen eta iritzia fabrikatzearen arteko elkargunean al dago?

Ba al dakar aldaketarik demokraziaren auzian, txikia izanda ere? Esportagarria al da, edo, gutxienez, parekagarria al da proiektuan agertzen diren esparru oso bestelakoetan gertatutako beste berrikuntzekin?

Bi erreferentzia baliagarri suerta litezke erakusketaren garrantzia eta nahia finkatzeko orduan.

Lehena Gauza hitzaren anbiguotasun bikaina da, hizkuntza europar guztietan bi esanahi baititu aldi berean: “horko gauzaki hori” eta “eztabaida kuasipolitiko eta judizialerako biltzarra”. Mende askotan zehar, uste izan zen posible izango zela errotik bereiztea horko gauza horiek, adituei eta biltzar politikoei uzten zitzaizkienak, giza interes eta pasioez bakarrik jarduten zutenak. Orain, zientzia eta teknologia-
ren “gauzak” beti egon behar zuten lekura itzuli dira: prozesu politikoaren baitara. Errepublikak hitzean ere azpimarratu egiten da berriro “res” hitza. Gauzak, nolabait esatearren, ostera bihurtu dira “gauzak”, hau da, eztabaidarako biltzarrak. Arazoa da inork ez daukala ideia oso argi bat biltzar horiek hartu beharko luketen formari dagokionez. Bigarren erreferentzia John Dewey-rena da. Deweyk funtsezko galdera luzatzen zuen *Publikoa eta bere arazoak* liburuan: berarentzat, publikoa ez da borondate orokorraren ondorioz existitzen dena, bat-batean herritarrek altruismora konbertituta edo beren bizitza adituen jakintzara gomendatuta. Publikoa guztiengan eragina duen hori da, zer den inork ez dakiena; batez ere adituek, gure ekintza kolektiboaren kausa eta ondorio ustekabekoak horixe baitira, hain zuzen: usteka-bekoak. Hartara, begien aurrean ikusgai izatearren, ustekabeko loturen weba astiro esploratu behar da, eta sarritan irudikatu hainbat eta hainbat asmakizun edo trikimailuren bidez. Zenbaiti, biltzar horiek apalegiak eta mundanoegiak irudituko zaizkie, baina prozedura horiek bildu eta alderatzea bide bakarra izan liteke, oraindik ere ilustrazioaren bila abiatu nahi badugu haren argi indartsurik gabe. Helburua zera da, parte hartzea, modu txit apal eta materialean, Europarako eraginkorra izango den Konstituzio bat idazten; bertan, “konstituzio” hitzak, “demokrazia ordezkatzaila” esaten zaionaren ohiko kontuetara bakarrik zabaldu beharrean, irudikapen kate osoak barne hartu beharko lituzke, eta horien artean alderdi politikoak parte xume bat besterik ez dira. ❧

BRUNO LATOUR filosofo eta antropologoa. 1982az geroztik irakasle izan da Centre de Sociologie de l'Innovation delakoan, Parisko École Supérieure des Mines-en eta, denboraldi desberdinetan, irakasle gonbidatu moduan jardun du UCSDn, London School of Economics-en eta Harvard Unibertsitateko Zientziaren Historia departamentuan. *Iconoclash* erakusketan komisario lanak egin ondoren, une honetan beste erakusketa bat ari da prestatzen ZKMn, hura ere Peter Weibelekin. <http://www.ensmp.fr/~latour/biography.html>

PETER WEIBEL Karlsruheko Arteen eta Medietarako Zentroaren <http://on1.zkm.de/zkm/e/>. —ZKMren— zuzendaria da gaur egun. 1994az geroztik, Ikusizko Medien irakasle izan da Vienako Arte Aplikatuaren Unibertsitatean, eta Bideo eta Arte Digitalen irakasle laguntzaile New Yorkeko State Universityn, Buffaloko kanpusean.

Testu hau <http://www.ensmp.fr/~latour/> helbidean ingelesez eta frantsesez dago. © 2003 ZKM | Zentrum für Kunst und Medientechnologie Karlsruhe

www.ensmp.fr/~latour/